

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Udal Kirol Erakundea (Barakaldo)****Aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesuen Oinarri Orokor eta Espezifiko arautzaileen iragarkia.**

Lehendakaritzaren otsailaren 23ko 42/2023 Ebazpenaren bidez, behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarriaren eta 2. artikulua onduzko aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesuen oinarri orokor eta espezifiko arautzaileak onartu ziren.

Horien aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio erakunde autonomoko lehendakariari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 114., 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Barakaldon, 2023ko otsailaren 24an. — Presidentea, Jose Ignacio Asensio Novo



**ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAREN SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRITIK
ERATORRITAKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO HAUTAKETA
PROZESUAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRI OROKORRAK**

1. Xedea eta araubide juridikoa

1.1. Oinarrien xedea

Oinarri hauen xedea da abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. xedapen gehigarritik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautuko dituzten arau orokorrak ezartzea (20/2021 Legea, Barakaldo Kirolak erakunde autonomoan enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa).

Hautaketa prozesu bakoitzaren berezitasunak deialdietako oinarri espezifikoetan arautuko dira. Oinarri espezifikoek, nolanahi ere, honako hauek jaso beharko dituzte:

- Deitutako lanpostuen identifikazioa, horien kopurua eta lotutako lanpostuak eta, hala badagokio, sartzeko txanda.
- Deitutako plazei lotutako lanpostuak eskuratzeko baldintzak, sartzeko titulazioa, hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data.
- Baloratu daitezkeen merezimenduak eta horien baremoa.
- Emakumeen lehentasun klausula aplikatzeari edo ez aplikatzeari buruzko aurreikuspena.

1.2. Hautaketa prozesuaren helburua

Prozesuaren helburua da, aipatutako 20/21 Legean ezarritakoa betez, 23 pertsona hautatzea Barakaldo Kirolak erakunde autonomoko lan kontratuko langile finko gisa kontratatzeko, oinarri espezifikoetan adierazitako kategorien eta lanpostuen arabera.

1.3. Administrazio deitzailea eta hautaketa prozesua

Barakaldo Kirolak erakunde autonomoa da hautaketa prozesuaren administrazio deitzailea; Barakaldoko Udaleko erakunde autonomoa.

Barakaldo Kirolak, Barakaldoko Udalaren menpeko Udal Sektore Publikoko kide gisa:

- a) Barakaldoko Udalaren iragarki taula, egoitza elektronikoa, webgubea eta arreta emateko eta erregistratzeko bulego presentzialak baino ez ditu erabiliko eskabideak eta dokumentazioa, komunikazioak, iragarkiak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta hautaketa prozesurako beharrezkoak diren gainerako izapideak aurkezteko. Erakunde autonomoaren webgunea erabili ahal izango da, osagarri edo gehigarri gisa.
- b) Jatorrizko udalari eskatu ahal izango dio, erakundea atxikita dagoen zinegotzi delegatuaren bitartez, Udalak bere gain har ditzala kudeaketa lanak, datuak egiaztatzeko lanak, epaimahaiak edo epaimahaikideak osatzeko lanak, proba bateratuak edo komunak egiteko lanak, prozesu informatikoak eta burokratikoak egiteko lanak eta, beharrezkoa izanez gero, hautaketa prozesua osorik izapidezteko lanak.

1.4. Enplegu harremana eta hautaketa sistema

Hautaketa-prozesua Barakaldo Kirolak erakunde autonomoko lan kontratuko langile finkoena da, eta hautaketa sistema lehiaketaren arabera antolatuko da, 20/2021 Legearen 6. xedapen gehigarrian adierazitako salbuespenezko sistemaren arabera.

1.5. Prozesuaren araudia aplikagarria

Aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiari honako araudi hau aplikatuko zaio:

- Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzkoa.



- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa
- 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidego eta eskalei buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioei aplikatzekoa zaien guztian.
- Ordezko gisa, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartutako Estatu-ko Administrazio Orokorreko Langileak Lanera Sartzeko, Lanpostuak Hornitzeko eta Estatu-ko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen Lanbide Sustapenerako Erregelamendu Orokorra.
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatze-koa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri adminis-trazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore publikoko araubide juridikoarena.
- 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko
- Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 1986ko apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez one-tsitako toki araubideko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bate-ratua
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore publikoko araubide juridikoarena.
- Oinarri orokorrak.

1.6. *Oinarrien zuzenketak eta aldaketak*

Behar bezala justifikatutako arrazoiak izan ezik, oinarri orokorretan eta espezifikoetan aldaketarik gertatuz gero, behar bezala argitaratu arren, ez da jarduketen atzeraera-ginik izango, ezta eskabideak aurkezteko epea berriro irekitzea ere.

2. Parte hartzeko baldintza orokorrak

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa prozeduran parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak be-rretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatu behar zaion beste estaturen batekoa, Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuan zehaz-ten den moduan.



- b) Parte hartu ahal izango dute, halaber, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek, betiere Zuzenbidetik bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearenek ere, baldin eta bi ezkontideak Zuzenbidetik bananduta ez badaude, ondorengo horiek 21 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak izan eta haien kontura bizi badira (5/2015 LEDaren 57. artikulua).
- c) Aurretiazko eskaera egitea.
- d) Lortu nahi den eskala edo kategoriako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- e) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
- f) Diziplina espediente bidez autonomia erkidegoetako edozein administrazio publikoren edo konstituzio edo estatutu erakunderen zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezian ez egotea, funtzionarioen kidego edo eskaletara edo lan kontratuko langileen kategorietara iristeko.
- g) Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ezin dira egon desgaituta (edo horren pareko egoera batean), eta ezin dute eduki ezarrita norberaren estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristea eragozten duen diziplina zehapenik ez horren parekorik.
- h) Eskatutako titulazioaren jabe izatea edo titulazio hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazio hori berriazko oinarrietan adieraziko da. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.
- i) Atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiek dagokien baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria dutela egiaztatu beharko dute.
- j) Hautaketa prozesuaren barruan, lanposturako (lan kontratuko langileen kasuan) edo lanpostuari lotutako lanposturako (funtzionarioentzat gordetako plazen kasuan) eskatzen den hizkuntza eskakizuna dutela egiaztatzea, edo hautaketa prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen probak gainditzea. Baldintza hori betetzeko data hautaketa prozesuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzeako proba egiten den eguna izango da.
- k) Herri administrazioetako langileen bateraezintasunen arloan indarrean dauden legezko arauetan aurreikusitako ezgaitasuneko edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea; nolahi ere, kargu publiko bat edo jardura pribatu bateraezin bat betetzen dutenek aipatutako araudian aipatzen den aukera eskubidea baliatu ahal izango dute.
- l) Ez izatea karrerako funtzionarioak edo eskala, azpieskala edo kategorია bereko lan kontratuko langile finkoak erakunde deitzailean.
- m) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein baldintza.

Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek berriaz onartu beharko dute beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta xedearekin tratatzea.

2.1. Baldintzak betetzeko datak

Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretan eta espezifikoetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte eskubideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, 8.1 oinarrian aurreikusitako salbuespenak izan ezik, eta plantillako lan kontratuko langile finko gisa kontratatzen diren egunean baldintza horiek betetzen jarraitu beharko dute.

2.2. Betekizunak egiaztatzeako denbora eta modua

Betekizunak egiaztatzeako denbora eta modua zortzigarren oinarrian ezartzen dira.

3. Desgaitasuna duten pertsonen sarbidea

3.1. Desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkeztzen direnek, 2. oinarrian aipatzen diren parte hartzeko baldintzak betetzeaz gain, % 33ko edo



gehiagoko desgaitasuna aitortua izan beharko dute Foru Aldundietako organo eskudunak, IMSERSOK edo baliokideak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

3.2. Oinarri espezifikoetan txanda bakoitzean deitutako plaza kopurua adieraziko da (sarbide orokorra edo desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako).

3.3. Desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako plazak, bertaratzen ez direlako edo dagozkien hautaketa prozesuak ez gaingaitzeagatik hutsik geratzen direnak, txanda irekian eskainitakoei gehituko zaizkie. Hala ere, desgaitasuna dutenentzako gordetako eta betetako plazak deitutako plazen %3ko tasara iristen ez badira, bete ez diren plazak hurrengo enplegu publikoko eskaintzaren ehuneko zazpiko kupoan sartuko dira, eta gehieneko muga %10ekoa izango da Enplegu publikorako sarbidea eta desgaitasuna duten pertsonen lanpostuen hornidura arautzen duen abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuaren arabera.

4. Hautatzeko baldintza orokorrak

Lanpostuak betetzeko baldintzak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazak ezin izango dituzte bete, inola ere, horiek betetzen direla egiaztatu ez dutenek. Baldintza horiek deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

Deialdi bakoitzean, deialdiko plazei lotutako lanpostuei esleitutako berariazko betekizunak zerrendatuko dira.

Lanpostu jakin batzuek espezialitate jakin bat izatea eskatzen badute, deialdien oinarri espezifikoek zehaztuko dute egiaztatze modua.

5. Lanpostuak esleitzeko baldintza orokorrak

Epaimahaiak ezin izango du proposatu lan kontratuko langile finkoa izatea deitutako plazak baino gaingitu duten pertsona gehiago, salbu eta izendapenaren edo lanpostuaz jabetu aurretik hautatutako pertsonak uko egiten diotenean, edo 15. oinarrian xedatutakoaren arabera hautagaiei eskatutako dokumentazioa ez aurkeztean, edo aurkeztutakotik ondorioztatzen denean ez dutela betetzen 2. oinarrian eskatutako baldintzaren bat edo ez dutela betetzen zereginak betetzeko eskatzen den gaitasun fisikoa edo psikikoa.

Kasu horietan, epaimahaiak egindako hautaketa prozesua gaingitu duten pertsonen zerrenda erabiliko da, dagokion izangaiaren aldeko izendapen osagarriaren proposamena egiteko, hautaketa prozesua gaingitu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio ordenaren arabera.

6. Argitalpenak eta iragarki taula

Hautaketa prozesuetarako deialdiak dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratuko dira, bai eta Barakaldoko Udalaren iragarki taulan eta webgunean ere. Hautaketa prozesuan zehar, Barakaldoko Udalaren iragarki taulan eta webgunean argitaratuko da haren garapenari buruzko informazio guztia, jakinarazpen ondorioetarako.

7. Eskabideen aurkezpena

7.1. Prozesua onartzea

Onartzeko eta, hala badagokio, dagozkien hautaketa prozesuetan parte hartzeko, honako hauek bete beharko dira:

- 1) Katgoria bakoitzeko eskabidea edo eskabideak atal guztietan betetzea.
- 2) Epe barruan aurkeztea.

Halaber, aurkezteko epea amaitzen denean, eskatutako baldintza guztiak beteta eduki beharko dira, 8.1 oinarrian euskararen ezagutzari buruz aurreikusitakoa izan ezik, 8.10 oinarrian aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko baitira.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak berekin ekarriko du prozesu hori arautzen duten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea.



7.2. Eskabideak aurkezteko modua

7.2.1. Eskabidea. Hautaketa prozesurako eskabideak Udalaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen instantzia galdetegi baten arabera formalizatuko dira (Barakaldoko Udalaren webgunearen bidez, www.barakaldo.eus) aurkezteko epean (7.4 oinarria), helbide elektroniko honetan:

Barakaldoko Udala-Egonkortze Hautaketa prozesuak Barakaldo Kirolak erakunde autonomoa.

Eskabideak bi formatu izango ditu, hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko lekuaren eta bitartekoaren arabera (7.3 oinarria):

- a) Web instantzia galdetegia, Barakaldoko Udalaren egoitza elektronikoan bertan telematikoki aurkezteko.
- b) Eskabide-inprimakia PDF inprimagarri formatuan, deskargatzeko, betetzeko, sinatzeko eta aurrez aurre edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bide gehigarrien bidez aurkezteko.

7.2.2. Instantzia komuna izango da, bai txanda irekirako, bai desgaitasuna duten pertsonen txandarako, eta, gutxienez, honako informazio hau betetzeko eremuak izango ditu:

- a) Hautagaiaren datu orokorrak.
- b) Lortu nahi den plaza edo plazak, kategoriaren arabera.
- c) Aukeratutako txanda (txanda irekia edo desgaitasuna duten pertsonen txanda). Bi txanda horietako batean bakarrik parte hartu ahal izango da. Desgaitasunen bat duten pertsonentzako txandan parte hartzen dutenek adierazi beharko dute ea denbora eta/edo bitarteko egokitzapenik eskatzen duten hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egiteko, eta, hala badagokio, egokitzapen horien arrazoa adierazi beharko dute.
- d) Erantzukizunpeko adierazpena, eskatutako baldintza guztiak betetzen direla adieraziz, betiere epea amaitzen den egunari dagokionez.
- e) Plaza aukeratzeko gaitzen duen titulu akademikoa adieraztea, edo instantziak aurkezteko epea amaitzen denean hori lortzeko moduan dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- f) Euskara: Egiaztatutako gehieneko euskara maila adieraziko da, bai eta euskara azterketa egin nahi duen ere, lortu nahi den hizkuntza eskakizuna zehaztuta.
- g) Administrazio publikoetan egindako zerbitzuen aitortpena.
- h) Gainerako merezimenduak: oinarri espezifikoetan baloratu daitezkeen gainerako merezimenduak adieraztea.
- i) Datuak, betekizunak, informazioa eta merezimenduak egiaztatzearen edo/eta hautaketa prozesuan ofizioz sartzearen aurka ez dagoela adieraztea.
- j) Barakaldo Kirolak erakundearen esku dauden agiriak adieraztea, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentaziotik salbuesteko (7.2.3 oinarriak).
- k) Barakaldo Kirolak erakundeak deitutako hautaketa prozesuaren informazio ofizial, errekerimendu, komunikazio eta jarraipen guztia Barakaldoko Udalaren iragarki taularen, haren egoitza elektronikoaren eta webgunearen bidez egingo dela berariaz adieraztea, Barakaldo Kirolak erakunde autonomoaren webgunean edo aldizkari ofizialetako iragarkietan argitara daitezkeen informazio gehigarria izan ezik.
- l) Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztapenak edo salbuespenak egiaztatzeko berariazko baimena.
- m) Oinarriak ezagutzen direla eta hautaketa prozesuan parte hartzen dela adieraztea prozesua arautzen duten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea da.

7.2.3. Instantzian erantsi beharreko dokumentazioa. Instantzia galdetegiarekin batera honako hauek ere aurkeztu beharko dira:



- Parte hartzeko ezinbesteko titulu akademikoaren kopia. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazio ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da.
- Alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien kopia.
- Desgaitasun txandan parte hartzen duten izangaiek egoera hori betetzen dutela egiaztatzen duen agiriaren kopia aurkeztu beharko dute.
- Administrazio publikoetan egindako zerbitzuen ziurtagiria. Barakaldo Kirolak erakunde autonomoan egindako zerbitzuen ziurtagiria salbuetsita geratzen da, ofizioz emango baitzaizkio Hautaketa Epaimahaiari, plaza, kategoria eta lanpostua adierazita.

Hautaketa prozesuak eskatzen dituen gainerako agiriak hamalagarren oinarrian adierazten den moduan bakarrik aurkeztuko dira.

Aurkeztu beharreko agiriak Barakaldo Kirolak erakundearen esku badaude, ez da berriro aurkeztu beharko, baldin eta agiri horiek entregatzeko data eta bulegoa adierazten badira, eta dagokion prozedura amaitu zenetik bost urte igaro ez badira.

7.2.4. Betekizunak eta merezimenduak adieraztea.

Kontuan hartu ahal izateko eta, hala badagokio, zuzendu eta/edo egiaztatu ahal izateko, parte hartzeko baldintzak eta merezimenduak nahitaez aitortu eta alegatu beharko dira eskabideak aurkezteko epean, zortzigarren oinarrian adierazten den bezala.

7.3. Eskabideak aurkezteko tokia eta bitartekoak

7.3.1. Eskabideak eta eskatutako agiriak leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

- a) Eskabide elektronikoa egoitza elektronikoa:
Aurkezpen elektronikoa aukeratuz gero, identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat izan beharko du, honako egoitza honetan onartuak.
- b) Aurrez aurreko eskaera: Barakaldoko Udaleko erregistro eta herritarren arretarako bulegoetan.

Barakaldo Kirolak erakunde autonomoaren egoitzan ez da eskaerarik aurkeztuko.

7.3.2. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak, eta Barakaldo Kirolak erakunde autonomoaren hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidea Barakaldoko Udalari zuzendu beharko zaio.

7.3.3. Informazioaren tratamendua

Instantzian emandako informazio guztia, eta, hala badagokio, ofizioz egiaztatzen eratorritakoa, tratamendu-jarduera batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baino ez da erabiliko. Jarduera horren erabilera eta funtzionamendua bat etorriko dira Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin.

7.3.4. Datuak egiaztatzea eta/edo ofizioz sartzea.

Ofizioz, eta beste bide osagarri batzuk erabiltzeari kalterik egin gabe, honako betekizun/informazio hauek egiaztatu eta/edo espedientean sartuko dira, interesdunak berriaz kontrakoa adierazi ezean:

- Nortasun datuak egiaztatzea.
- Titulu akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitateaz kanpokoak).
- Hizkuntza eskakizuna (euskara).
- Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) egindako ikastaroen zerrenda.
- IT txartelak (erakunde ziurtatzailea).
- Barakaldo Kirolak erakunde autonomoan egindako zerbitzuak.



- Era berean, beste administrazio edo erakunde publiko batzuetan egindako zerbitzuak ere egiaztatu ahal izango dira.
- Izangaiak instantzian adierazi duen dokumentazioa, dagoeneko Barakaldo Kirolak-en esku dagoela, eta dagokion prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez direla.

7.4. *Instantziak aurkezteko epea*

Hogei (20) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

7.5. *Akatsak instantzietan*

Garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, hautagaia kanpoan geratuko da.

Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikulua erekin bat etorritik, eskabideetan akatsik egonez gero, Udaleko iragarki-oholean eta Udalaren webgunean, Udalaren eta haren erakunde autonomoen hautaketa prozesuei buruzkoan, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean zuzen dezala dokumentaziorik eza, hautagaiaren erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritik, eta jakinaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

Informazio gehigarri gisa, errekerimendu hori Barakaldo Kirolak-en webgunean ere jaso ahal izango da.

Hau eta hautaketa prozesuak eskatzen dituen gainerako agiriak zazpigarren eta hamalagarren oinarrietan adierazten den moduan bakarrik aurkeztuko dira.

8. Eskakizunak eta merezimenduak. Erreferentzia datak, deskribapena, alegazioa eta egiaztapena

8.1. *Merezimenduak eta parte hartzeko baldintzak betetzeko erreferentzia datak*

Alegatzen diren merezimenduak eta betekizunak eskuratzeko erreferentzia data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, honako kasu hauetan izan ezik:

- Euskararen ezagutza, 8.9 oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dena.
- Dagokion elkargo profesionalean elkargoko kide izatea, araututako lanbide bati dagozkion eginkizunak betetzen dituzten eskala edo lanpostu jakinen kasuan; lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da.

8.2. *Betekizunak eta merezimenduak alegatzea*

Parte hartzeko baldintza orokorrak eta desgaitasunen bat duten pertsonak sartzeko txandari dagozkion baldintza espezifikoak, deitutako plazei lotutako lanpostuen berariazko baldintzak eta merezimenduak eskabideak aurkezteko epean alegatu beharko dira.

8.3. *— Betekizunak eta merezimenduak egiaztatzea*

8.3.1. Epaimahai kalifikatzaileak alegatutako merezimenduak egiaztatuko ditu, kasuen arabera, dagozkion erregistroetan, administrazio publikoen datuen bitartekaritza plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundean kontsulta eginez.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzailearen oposizio arrazoiak agertzen bada eta tratamendu jardueraren ardura duen organoak ikusten badu.

Arrazoiutako aurkakotzarik agertuz gero, harekin batera nahitaez aurkeztu beharko dira kontsultaren aurka dauden agiriak.

8.3.2. 14. oinarrian xedatzen den bezala, hautatutako pertsonak, lan kontratuko langile finko izendatu aurretik, merezimenduei eta betekizunei buruzko agiriak aurkeztu beharko dituzte, honako kasu hauetan:

- Horien egiaztapena ezin izan badu egin epaimahai kalifikatzaileak, edo
- Izangaiak egiaztapen horren aurka egin badute, organo eskudunak egiaztapen hori aztertu duenean.



Hala ere, epaimahai kalifikatzaileak prozeduraren aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du dokumentazio hori aurkezteko. Kasu horretan, oinarri orokor hauetako 14. oinarrian ezarritako baldintzak bete beharko ditu dokumentazioak.

8.4. *Desgaitasuna duten pertsonak sartzeko txandan parte hartzeko baldintza*

3.1 oinarrian ezarritako sarbide-txandan parte hartzeko baldintza —%33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortzea— bere aitordenaren bidez alegatu beharko da, baldin eta aitordena euskal administrazio publikoek egin badute.

Aitordena beste administrazio publiko batzuek egin badute, aitorden agiriaren kopia soila ere aurkeztu beharko da.

8.5. *Esperientzia eta antzintasuna*

Herri administrazioetan emandako zerbitzuengatiko esperientzia balioetsiko da funtzionalki antzekoak diren lanpostuei lotutako plazak eskuratzeko.

- Barakaldo Kirolak zerbitzuan emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, eta ofizioz zenbatuko dira.
- Gainerako herri administrazioetan emandako zerbitzuak justifikatzeko, egiaztagiaren kopia soila aurkeztu beharko da. Dokumentu horrek, administrazio bakoitzak erabakitzen duen ereduari, lan egindako aldiak banakatu beharko ditu, eta taldea, kidegoa, aukera, eskala, azpieskala, klasea edo kategoria eta plazari lotutako lanpostuaren izena zehaztu beharko ditu.

Ondorio horietarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero indarkeriagatiko eszedentzia egoeran egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanak erantzukidetasunez uztartzea erraztea helburu duten denbora, eta langile publikoek genero indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikularen arabera (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua).

8.6. *Titulazioak*

Titulazioak alegatzeko, betekizun edo merezimendu gisa, dagokion izapidean deklaratu beharko dira, 8.2.2 atalean xedatutakoaren arabera.

Atzerriko titulazioen kasuan, gainera, tituluaren kopia sinplea aurkeztu beharko da, bai eta homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiarena ere, epaimahai kalifikatzaileak hala eskatzen dionean.

8.7. *Karrerako funtzionario edo lan kontratuko langile finko izateko prozeduran edo bi-tarteko edo aldi baterako estaldura emateko prozeduran parte hartzea*

Dagokion administrazioak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

8.8. *Ikastaroak*

Dagokion erakundeak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, ordu kopurua jasotzen duena. Ez dira kontuan hartuko orduak jasotzen ez dituzten ziurtagiriak.

8.9. *Informatika ezagutzak*

Informatika ezagutzak IT Txartela ziurtapen sistemaren bidez egiaztatuko dira, eta merezimenduak alegatzeko epean alegatu beharko dira.

8.10. *Euskarazko hizkuntza eskakizuna egiaztatzea*

Euskara azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko eta borondatezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, eta ez baztertzaila gainerako lanpostuetan. Euskara azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila gaitzen ez duten edo egiten ez duten izangaiek hautaketa prozedurarekin jarraituko dute derrigortasun hori



duten lanposturik ez duten lanpostuetan, eta, hala badagokio, ariketa honetan lortutako kalifikazioa zenbatuko da.

Barakaldo Kirolak erakundearen hizkuntza eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa prozesuan, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen salbuespenen kasuan (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoa eta euskarazko hizkuntza titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuestekoa), salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen bada.

Aukera horretatik salbuetsita daude eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen salbuespenen kasuan, aipatutako Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira.

Nolanahi ere, edozein titulu edo euskara ziurtagiri egiaztatzeko gehienezko epea euskara ariketa egiten den eguna izango da.

Egin beharreko egiaztapenak egiteko, interesdunak berariaz baimenduko du Barakaldo Kirolak programa, bere egiaztapena edo aipatu erregistroan duen salbuespena egiaztatzeko.

Nolanahi ere, interesdunak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta ditzake bere datuak, esteka honen bidez: <http://www.euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/>

Hizkuntza eskakizunen baliokideak diren ziurtagiriak eta tituluak honako hauetan zehazten dira: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzen dituen; eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartu eta euskarazko hizkuntza-titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteari buruzkoa.

8.11. Lanpostuen betekizun espezifikoak

Lanpostu zerrendan berariazko betekizunak esleituta dituen lanpostu bati lotutako plaza bat esleitu ahal izateko, izangaiak 8.2 oinarrian ezarritako epean alegatu beharko dute, oinarri espezifikoetan lanpostu bakoitzerako zehazten den moduan.

9. Hautagaiak onartzea

9.1. Instantziak aurkezteko epea amaitu eta eskabideetan akatsak zuzentzeko epea igaro ondoren, Lehendakariak behin betiko onarpen, baztertze eta atzera egiteen zerrendak onartzeko ebazpena emango du, izangaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorriz. Adierazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko da.

Zerrenda hori eskatzaile bakoitzak eskabidean betetzen duen erantzukizunpeko adierazpenari lotutako datuen arabera egingo da.

Zerrendetan jasoko dira hautagaien izena eta bi abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, eta ez onartzeko arrazoia, prozesutik kanpo geratzen diren pertsonentzat.

9.2. Onarpen, baztertze eta atzera egiteen zerrendak onartzen dituen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko (1) epean, ebazpena Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Baztertutako pertsonak merezimenduaren baloraziora eta euskara proba egitera kautelaz aurkeztu ahal izango dira, baldin eta egiaztatzen badute baztertua izatearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela, baldin eta egun horretarako ez bada ebatzi.



Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean jarritako errekurtsua ebatzi ez bada, interesdunek kautelaz egin ahal izango dute euskara proba. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsua ezesten bada.

9.3. Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa prozesuan eskatzen diren baldintzak aitortzen zaizkienik. Azkenean pertsona hautatzen bada, izendapenaren aurretik aurkeztu behar den dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela baldintzaren bat, prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte.

Hautaketa prozesuaren edozein unetan, Kalifikazio Epaimahaia jakitun bada hautagairen batek deialdi honetan eskatutako betekizunak betetzen ez dituela, interesdunari entzunaldia eman ostean, kanporatzeko proposatu beharko dio organo eskudunari, eta hautagaiak parte hartzeko eskaeran emandako informazio zehaztugabearen edo faltsuaren berri emango dio.

10. Lanpostua hautatzeko prozedurara deitutako pertsonak kalifikatzeko eta hautatzeko prozedura

10.1. Hautaketa prozedura lehiaketa izango da, txanda libreetan eta desgaitasuna duten pertsonetan.

Lehiaketan, Epaimahai Kalifikatzaileak instantzia galdetegian alegatu eta aurkeztutako merezimenduak aztertu eta baloratuko ditu.

Nolanahi ere, alegatu eta aurkeztu diren merezimenduak zenbatzeko azken eguna eskaera aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, 8.1 oinarrian aurreikusitako salbuespenarekin.

10.2. Euskara azterketa nahitaezkoa eta baztertzalea izango da derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duen lanpostu bat dakarten plazen kasuan, salbu eta hizkuntza eskakizuna egiaztatuta badute, eta borondatezkoa eta baztertzalea gainerako plazetan. Euskara azterketa nahitaezkoa eta baztertzalea gaingiditzen ez duten edo egiten ez duten izangaiek hautaketa prozedurarekin jarraituko dute derrigortasun hori duten lanposturik ez duten lanpostuetan, eta, hala badagokio, ariketa honetan lortutako kalifikazioa zenbatuko da.

Lortutako hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izango da deialdiko euskara azterketa egiten den egunera arte. Instantzian hala eskatu dutenak bakarrik aurkeztu ahal izango dira.

10.3. Lehiaketa fasearen kalifikazioa eta destinoak hautatzea.

Lehiaketa fasearen balorazioa deialdiko merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du.

10.4. Hautagaien kalifikazioa eta antolamendua.

Destinoa aukeratzeko, eta kontratazio proposamena egin aurretik, zerrenda bat osatuko da, txandaren arabera, kategoria bakoitzeko, lehiaketaren ondoriozko puntuen lehentasunarekin ordenatuta. Horretarako, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Desgaitasun txandan: baldintza betetzea.
- Kategorian eta/edo lanpostuan sartzeko titulazioa betetzea.
- Derrigortasun data igarota duen hizkuntza eskakizuna betetzea.
- Lehentasun ordena, merezimenduen baremoan ateratzen diren puntuen arabera.

Puntuazio berdineko kasuetan zerrendako hurrenkerak ez du inolako lehentasunik ekarriko, eta kasu horietan lehen abizenaren ordena alfabetikoaren arabera erlazionatuko dira. Berdinketa hausteko, lanpostuak hautatzeko prozedura erabiliko da.

Zerrendak, txandaren, kategorien eta eskakizunak betetzearen arabera, 6. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko dira, interesdunek egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten 10 egun balioduneko epean.

**11. Lanpostua edo destinoa hautatzeko eskaera**

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta aurkeztutakoak ebatzi ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak honako zerrenda hauek argitaratzeko aginduko du:

- Hautaketa prozesua gainditu duten izangai guztien zerrendak, txandak, kategoriak eta betekizunak kontuan hartuta.
- Lanpostuak hautatzeko prozedurara deitutako lanpostu kopuruaren berdina edo handiagoa den hautagai kopuruaren zerrendak, kategoriak eta betekizunak kontuan hartuta.
- Esleitu beharreko lanpostuen zerrendak, txandak, kategoriak eta betekizunak kontuan hartuta.

Lanpostuak hautatzeko prozedurara deitutako izangaiek aukeratu beharreko lanpostuen kopuru bera edo handiagoa izango dute, deialdiaren xede diren plaza guztiei lotutako kontratazioa beteko dela bermatzeko.

Izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute lanpostua edo lanpostuak aukeratzeko, eta horretarako berariazko instantzia galdetegi bat izango dute.

Hautaketa, epearen barruan aurkeztu ondoren, ezin izango da inola ere aldatu edo kendu. Emandako epean lehentasunik adierazten ez bada, baldintzak betetzen ez dituzten lanpostuak adierazten badira edo berdinketa hausteko irizpideak aplikatu ondoren puntuazio edo lehentasun handiagoa duten hautagaiek aukeratu dituzten lanpostuak adierazten badira, epaimahai kalifikatzaileak ezingo du kontratazio proposamenik egin hautaketa-prozesua gainditzeagatik.

Destinoa aukeratzeko eskaera horietan, desgaitasuna duten sarbide txandako parte-hartzaileek lanpostuaren edo lanpostuen egokitzapenak eskatu ahal izango dituzte. Eskatutako egokitzapena egokia den eta eskatutako lanpostuek esleituta dituzten zereginekin bateragarria den zehazteko, pertsona horiek Barakaldoko Udaleko Prebentzio Zerbitzuak edo Barakaldo Kirolak erakundeko Prebentzio Zerbitzuek deitu ahal izango dituzte.

12. Berdinketa hausteko irizpideak

Lanpostuak hautatzeko prozedura honetan hautagaien arteko berdinketa gertatzen bada, hurrenkera honi jarraituko zaio, berdinketa desegin arte:

- Lanpostu horretan emandako zerbitzuak.
- Kategoria horretan emandako zerbitzuak.
- Talde berean egindako zerbitzuak (A1, A2, C1, C2, AP).
- Barakaldo Kirolak erakundean emandako zerbitzuak.
- Udalean edo haren erakunde autonomoetan emandako zerbitzuak.
- Edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak.
- Azkenik, berdinketa hautsi ezean, zozketa egingo da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legean (martxoaren 3ko 1/2022 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duenak, aldatua) ezarritako emakumeei lehentasuna emateko klausula ez da aplikagarria.

13. Hautaketa prozesua gainditzea eta kontratazio proposamena

13.1. Barakaldo Kirolak erakundeko lan kontratuko langile finko gisa kontratatzeko proposamena duen hautaketa prozesua gaindituko du deialdiaren baldintzak (baldintza orokorrak, txandakoak, titulaziokoak eta hizkuntzakoak) eta lehiaketa fasearen ondoriozko kalifikazioaren arabera lanpostuari atxikitako lanpostu bat destino hautaketaren arabera lortzeko moduan dagoen hautagaia.

13.2. Epaimahaiak hautagai guztiek beharrezko baldintzak betetzen dituztela berrikusiko du, eta kategoria bakoitzean behin-behineko zerrenda bat egingo du, hauta-



gaiek egindako hauteskundearen arabera eta merezimenduen baremazioaren ondoriozko lehentasunaren arabera, lanpostu zehatzak esleitu.

Izendapenik gabeko lanposturik geratzen bada, epaimahaiak deialdi gehigarriak egingo ditu zerrendetako kideen artean.

13.3. Zerrenda argitaratu egingo da eta hamar egun balioduneko epea emango da erreklamazioak eta zuzenketak egiteko.

Epea amaitu eta egon daitezkeen erreklamazioei erantzun ondoren, epaimahaiak kategoriaren arabera proposamen individualizatua egingo du, eta banaka esleitu ditzake dagozkion lanpostuak.

14. Agiriak aurkeztea

Proposatutako izangaiak, Udaleko Erregistroaren bitartez eta Epaimahaiaren proposamena argitaratzen denetik kontatzen hasita 20 egun balioduneko epean, deialdiaren oinarrietan hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko ditu:

1. Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziplina espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzuetik bereizita ez dagoela adierazten duen adierazpena.
2. Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bataeratzintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bataeratzintasunen kausaren batean ez dagoela adierazten duen aitortzea.
3. Medikuen ziurtagiria, zehazten diren zerbitzu medikoen emana, oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragotzen duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena. Desgaitasuna duten izangaiak organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, egoera hori eta lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasuna dutela egiaztatzeko.
4. Deialdiaren oinarrien arabera alegatu eta barematu diren gainerako betekizunak eta merezimenduen frogagiriak.

Adierazitako agiriak aurkeztea behar bezala justifikatzen ez bada, izangaiak egiaztatzen ahal izango du deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, zuzenbidean onargarria den edozein frogabideren bidez. Funtzionario publiko edo lan kontratuko langile dena salbuetsita egongo da aurreko izendapena edo kontratu finkoa lortzeko baldintzak eta eskakizunak agiri bidez justifikatzen. Dena den, Ministerioaren, Administrazio autonomikoaren, toki korporazioaren edo mendeko erakunde publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, bere izaera eta zerbitzu orrian agertzen diren inguruabar guztiak egiaztatuz. Adierazitako epearen barruan, eta gorabehera handiagoko kasuetan izan ezik, proposatutako izangaiak bere dokumentazioa aurkezten ez badu edo eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, ezin izango da izendatu eta bere jardura guztiak baliogabetuta geratuko dira. Nolanahi ere, eskabidean faltsutzeagatik erantzukizuna izan dezake hautaketa prozesuan parte hartzeko.

15. Lan kontratuko langile gisa kontratatzeko ebazpena

15.1. Epaimahaiaren proposamena eta izangaiak aurkeztutako dokumentazioa ikusita, eta beharrezko estatutu onarpenak jaso ondoren, Barakaldo Kirolak erakundearen ebazpen baten bidez baimena emango da kategorien arabera behin betiko hautatutako langileak lan kontratuko langile finko gisa kontratatzeko, esleitutako lanpostua adieraziz.

16. Epaimahaia

16.1. Osaera

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: lehendakari batek, hiru bokal edo gehiago bakoitiak, idazkariak eta horien ordezkariak.

Ez dela egokia behar bezala justifikatzen ez bada, epaimahaiaren osaera orekatua izango da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen



artean. Ordezkaritza orekatutzat joko da lau kideetik gorako organoetan sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkari-tza duenean, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua).

Epaimahaiak, egoki baderitzo, espezialisten aholkularitza izan dezake. Pertsona horiek, epaimahaiarekin lankidetzan, beren espezialitate teknikoari buruzko aholkuak ematera mugatuko dira.

Egokitutaz jotzen den kasuetan, eta deialdiko plazei lotutako lanpostuen berezitasun espezifikoak egiaztatzeko, izangaiek alegatutako merezimenduei dagokienez, epaimahaiak Barakaldoko Udaleko teknikarien laguntza izan ahal izango du behar dituen gai teknikoetarako.

Epaimahaietako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta ezin izango da izan inoren ordezkari edo kontura.

16.2. *Izendapena*

Epaimahaiburuaren ebazpen bidez izendatuko dira epaimahaikideak. Izendapenak 6. oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko dira, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendarekin batera.

16.3. *Abstentzioa eta errekusatzeta*

Epaimahaiko kide direnek ezin izango dute jardun, eta lehendakariari jakinarazi beharko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeretan, edo deialdia argitaratu aurreko azken bost urteetan hautaketa probetarako izangaiek prestatzeko lanak egin badituzte.

Era berean, aurreko arrazoi-tako bat gertatzen denean, interesdunek edozein unetan errefusatu ahal izango dituzte epaimahaia osatzen duten pertsonak, aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

16.4. *Jarduteko arauak*

Epaimahaiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.etik 18.era bitarteko artikuluetan zehaztutako arauen arabera jardungo du. Nolanahi ere, idazkariak deialdia egin ondoren, lehendakariak aginduta bilduko da, hautaprobak hasi baino behar beste lehenago. Batzordea behar bezala eratzeko, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria, edo, hala badagokio, haien ordezkariak, eta gutxienez kideen erdiak bertaratzea.

Epaimahaia osatzen dutenek hitza eta botoa izango dute, idazkaritzan dihardutenek izan ezik; azken horrek hitza izango du, baina botorik ez.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaiburuaren kalitatezko botoaren bitartez ebatziko dira berdinketak.

Kargua hutsik badago, kanpoan bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoi- ren bat gertatzen bada, antzintasun eta adin handieneko kideak ordezkatzeko du lehendakaria eta haren ordezkaria, hurrenkera horretan.

Idazkariaren eta haren ordezkariaren ordezkapena, kargua hutsik dagoenean, kanpoan denean, gaixorik dagoenean edo haiei eragiten dien legezko beste arrazoi- ren bat dagoenean, auzitegiak gehiengoaren erabakiz hautatutako bokalak egingo du.

16.5. *Ahalmenak*

Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du, eta prozeduraren gardentasunaren eta objektibotasunaren, proben edukiaren eta konfidentziasunaren eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzearen erantzule izango da.

Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, oinarri hauek eta oinarri espezifikoak aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, eta deialdia behar bezala gara-



tzeko behar diren erabakiak hartuko ditu, horietan aurreikusi gabeko kasuei dagokienez hartu behar diren irizpideak ezarritik.

16.6. Erreklamazioak, komunikazioak eta gorabeherak

Betekizun hori oinarri orokorretako 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatatu beharko da.

4. Hautaketa prozesua

Hautaketa sistema lehiaketa izango da eta bi (2) zati izango ditu:

- 4.1.1. Lehenengo zatia, lehiaketa: izangaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira.
- 4.1.2. Bigarren zatia, euskara proba: derrigorrezkoa eta baztertzaila izango da 1. hizkuntza eskakizuna duten lanpostu elkartuak lortu nahi dituzten izangaiarentzat, eta borondatezkoa eta ez baztertzaila izango da 1. hizkuntza eskakizuneko derrigorrezko hizkuntza eskakizuna ez duten lanpostu elkartuak lortu nahi dituztenentzat. Nolanahi ere, maila horretan euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatatu beharko da.

Adierazten den maila Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta ageri bada, ez da aparte egiaztatatu beharko. Horren ordean, izangaiak baimena eman beharko dio Barakaldo Kirolak erakunde autonomoari, aipatu erregistroan egiaztatu dezan.

Hala ere, erregistro horretan sartu gabeko beste edozein euskara titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina Euskara egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotua.



Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatu denaren itzalpean 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademiko egokia aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, soilik onartuko dira Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotutako salbuespenak.

5. Hautaketa prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa I. eranskineko merezimenduen baremoaren arabera emandako puntuen batura izango da.

5.2. Bigarren zatiaren emaitza gai edo ez gai izango da derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetarako izangai diren pertsonentzat. Hizkuntza eskakizuna betetzea derrigorrezkoa ez denean, euskararen ezagutza merezimendutzat joko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa zehazteko hautaketa prozesuan guztira jasotako puntuazioak batuko dira.

6. Lan poltsa

Ez da lan poltsarik sortuko hautaketa prozesu honen ondorioz.

7. Lehentasun klausula aplikatzea

Ez da aplikatuko.

**I. ERANSKINA****MEREZIMENDUEN BAREMOA**

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoari jarraikiz:

a) Esperientzia: gehienez 80 puntu**a.1. Esperientzia orokorra**

Esperientzia orokorra edozein administrazio publikotan (deialdia egin duen administrazioa barne) emandako zerbitzuak izango dira, dagokion hautaketa prozesuaren xede diren kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo aurrekoen parekoak diren lanbide taldeetan emanak, zeinahi delarik ere zerbitzaldiaren jatorrian dagoen harremana (funtzionario harremana edo lan harremana).

Gehienez ere 60 puntu emango dira, honako baremo honen arabera:

- C taldeko C2 azpitaldeko B kategoria ofizialean egindako zerbitzuengatik, edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioa barne, 0,0274 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Esperientzia espezifikoa

Gehienez ere 20 puntu emango dira, modu espezifikoan, bereizian eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, deialdia egin duen administrazioan dagokion hautaketa prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik emandako zerbitzuengatik, honako baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen administrazioan C taldeko C2 azpitaldeko B izen ofizialean egindako zerbitzuengatik, 0,00914 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbaketa egiteko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan egindako zerbitzu aldiak lanaldi osokoak bezala zenbatuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu edo izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Bestelako merezimenduak

Honako merezimenduengatik gehienez ere 20 puntu emango dira:

Derrigortasun data daraman lanpostuari lotutako lanposturako:

- Deitutako plazan lanean hasteko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izatea (betekizun gisa egiaztatu denaren desberdina), betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalera egokitutako titulazioak badira: 8 puntu.
- Karrerako funtzionario edo lan kontratuko langile finko izateko prozedura baten oposizio fasea gainditu izana, plazarik lortu gabe, edo, edozein administrazio publikotan, C taldeko B mailako ofizial, C2 azpitaldeko B mailako, C taldeko ofizial kategorian bitarteko edo aldi baterako lanpostuak betetzeko prozedura baten oposizio fasea gainditu izana, betiere deialdia BOEn argitaratu den Enplegu Publikoaren Eskaintzaren bidez egin bada, edo deialdia, bitarteko edo aldi baterako lanpostuak betez gero, dagokion aldizkari ofizialean argitaratu bada: 6 puntu.
- Deitutako lanpostuei lotutako lanpostuen eremu funtzionalarekin zerikusia duten eta erakunde ofizialek (Herri Administrazioko Eskolak edo Institutuak, Herri Administrazioak, Unibertsitateak, Elkargo Profesionalak, Mutualitateak, Fundazioak, Elkarateak, Federazioak) eman edo homologatu dituzten prestakuntza ikastaroengatik, puntu 1 ikastaro bakoitzeko, 20 ordukoa gutxienez, eta 6 puntu gehienez.

Beste plazarako:

- Deitutako plazan lanean hasteko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izatea (betekizun gisa egiaztatu denaren desberdina), betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalera egokitutako titulazioak badira: 5 puntu.



- b.2. Karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko prozedura baten oposizio-fasea gainditu izana, plazarik lortu gabe, edo, edozein administrazio publikotan, C taldeko B mailako ofizial, C2 azpitaldeko B mailako, C taldeko ofizial kategorian bitarteko edo aldi baterako lanpostuak betetzeko prozedura baten oposizio fasea gainditu izana, betiere deialdia BOEn argitaratu den En-plegu Publikoaren Eskaintzaren bidez egin bada, edo deialdia, bitarteko edo aldi baterako lanpostuak betez gero, dagokion aldizkari ofizialean argitaratu bada: 5 puntu.
- b.3. Deitutako lanpostuei lotutako lanpostuen eremu funtzionalarekin zerikusia duten eta erakunde ofizialek (Herri Administrazioko Eskolak edo Institutuak, Herri Administrazioak, Unibertsitateak, Elkargo Profesionalak, Mutualitateak, Fundazioak, Elkarateak, Federazioak) eman edo homologatu dituzten prestakuntza ikastaroengatik, puntu 1 ikastaro bakoitzeko, 20 ordukoa gutxienez, eta 5 puntu gehienez.
- b.4. Euskararen ezagutza.
Honako irizpide hauen arabera:
 - 1. hizkuntza eskakizuna: 5 puntu.



**20/2021 LEGEAREN 6. XEDAPEN GEHIGARRITIK ERATORRITAKO IRAUPEN LUZEKO ALDI
BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN
PROZESUAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK,
AP TALDEKO PEOI ESPEZIALISTAREN IZENARI DAGOKIONA**

1. Deitutako plazak

AP taldeko Peoi Espezialista izeneko 4 plazatarako deialdia egiten da, txanda irekian, honela banatuta:

Plaza kopurua	Lotutako lanpostu kopurua	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data)
4	3 Peoi Espezializatu Lanpostuaren Kodea 0150	PL1 hizkuntza-eskakizunak/baliok.
	1 Garbitzaile Espezializatu Lanpostuaren Kodea 0160	PL1 hizkuntza-eskakizunak/baliok.

2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazen izangaiek oinarri orokorren 2. apartatuan ezarritako baldintza orokorrak bete behar dituzte.

2.2. Oinarri orokorren 2h) atalean aurreikusitakoari dagokionez, honako titulazio hau beharko da:

Peoi espezialistentzako: Oinarrizko Lanbide Heziketa (adar teknikoa), OHO, DBH edo baliokidea garbiketako espezialistarentzat: Oinarrizko Lanbide Heziketa, OHO, DBH edo baliokidea

3. Hautaketa prozesua

Hautaketa sistema lehiaketa izango da eta bi (2) zati izango ditu:

- 3.1.1. Lehenengo zatia, lehiaketa: izangaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira.
- 3.1.2. Bigarren zatia, euskara proba: borondatezkoa eta ez baztertzaila, 1. hizkuntza eskakizunari dagokion mailan euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatzea izango da.

Adierazten den maila Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta ageri bada, ez da aparte egiaztatu beharko. Horren ordez, izangaia baimena eman beharko dio Barakaldo Kirolak erakunde autonomoari, aipatu erregistroan egiaztatu dezan.

Hala ere, erregistro horretan sartu gabeko beste edozein euskara titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina Euskara egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotua.

Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatu denaren itzalpean 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademiko egokia aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, soilik onartuko dira Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotutako salbuespenak.

4. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

- 4.1. Lehiaketaren kalifikazioa I. eranskineko merezimenduen baremoaren arabera emandako puntuen batura izango da.
- 4.2. Euskararen ezagutza merezimendu gisa jasoko da.
- 4.3. Izangaien azken kalifikazioa zehazteko hautaketa prozesuan guztira jasotako puntuazioak batuko dira.



5. Lan poltsa

Ez da lan poltsarik sortuko hautaketa prozesu honen ondorioz.

6. Lehentasun klausula aplikatzea

Ez da aplikatuko.

**I. ERANSKINA****MEREZIMENDUEN BAREMOA**

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera:

a) Esperientzia: gehienez 80 puntu**a.1. Esperientzia orokorra**

Esperientzia orokorra edozein administrazio publikotan (deialdia egin duen administrazioa barne) emandako zerbitzuak izango dira, dagokion hautaketa prozesuaren xede diren kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo aurrekoen parekoak diren lanbide taldeetan emanak, zeinahi delarik ere zerbitzaldiaren jatorrian dagoen harremana (funtzionario harremana edo lan harremana).

Gehienez ere 60 puntu emango dira, honako baremo honen arabera:

- AP taldeko peoi espezialistaren kategorian egindako zerbitzuengatik, edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioa barne, 0,0274 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Esperientzia espezifikoa

Gehienez ere 20 puntu emango dira, modu espezifikotan, bereizian eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, deialdia egin duen administrazioan dagokion hautaketa prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik emandako zerbitzuengatik, honako baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen administrazioan AP taldeko peoi espezialista izenean egindako zerbitzuengatik, 0,00914 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbaketa egiteko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan egindako zerbitzu aldiak lanaldi osoak bezala zenbatuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu edo izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Bestelako merezimenduak

Honako merezimenduengatik gehienez ere 20 puntu emango dira:

- Deitutako plazan lanean hasteko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izatea (betekizun gisa egiaztatu denaren desberdina), betiere deitutako plaza-zei lotutako lanpostuen eremu funtzionalera egokitutako titulazioak badira: 5 puntu.
- Karrerako funtzionario edo lan kontratuko langile finko izateko prozedura baten oposizio fasea gainditu izana, plazarik lortu gabe, edo edozein administrazio publikotan AP taldeko peoi espezialistaren/garbiketako espezialistaren kategorian bitarteko edo aldi baterako lanpostuak betetzeko prozedura baten oposizio fasea gainditu izana, betiere deialdia BOEn argitaratu den lan eskaintza publikoaren bidez egin bada, edo deialdia, bitarteko edo aldi baterako lanpostuak betez gero, dagokion aldizkari ofizialean argitaratu bada: 5 puntu.
- Deitutako lanpostuei lotutako lanpostuen eremu funtzionalarekin zerikusia duten eta erakunde ofizialek (Herri Administrazioako Eskolak edo Institutuak, Herri Administrazioak, Unibertsitateak, Elkargo Profesionalak, Mutualitateak, Fundazioak, Elkartek, Federazioak) eman edo homologatu dituzten prestakuntza ikastaroengatik, puntu 1 ikastaro bakoitzeko, 20 ordukoa gutxienez, eta 5 puntu gehienez.
- Euskararen ezagutza.
Honako irizpide hauen arabera:
 - 1. hizkuntza eskakizuna: 5 puntu.

**ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAREN 2. ARTIKULUTIK ERATORRITAKO
ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO HAUTAKETA PROZESUAK
ARAUTZEN DITUZTEN OINARRI OROKORRAK****1. Xedea eta araubide juridikoa****1.1. Oinarrien xedea**

Oinarri hauen xedea da abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikulutik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautuko dituzten arau orokorrak ezartzea (20/2021 Legea, Barakaldo Kirolak erakunde autonomoan enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa).

Hautaketa prozesu bakoitzaren berezitasunak deialdietako oinarri espezifikoetan arautuko dira. Oinarri espezifikoek, nolanahi ere, honako hauek jaso beharko dituzte:

- Deitutako lanpostuen identifikazioa, horien kopurua eta lotutako lanpostuak eta, hala badagokio, sartzeko txanda.
- Deitutako plazei lotutako lanpostuak eskuratzeko baldintzak, sartzeko titulazioa, hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data.
- Baloratu daitezkeen merezimenduak eta horien baremoa.
- Emakumeen lehentasun klausula aplikatzeari edo ez aplikatzeari buruzko aurreikuspena.

1.2. Hautaketa prozesuaren helburua

Prozesuaren helburua da, aipatutako 20/21 Legean ezarritakoa betez, pertsona bakarra hautatzea Barakaldo Kirolak erakunde autonomoko lan kontratuko langile finko gisa kontratatzeko, oinarri espezifikoetan adierazitako kategorien eta lanpostuen arabera.

1.3. Administrazio deitzailea eta hautaketa prozesua

Barakaldo Kirolak erakunde autonomoa da hautaketa prozesuaren administrazio deitzailea; Barakaldoko Udaleko erakunde autonomoa.

Barakaldo Kirolak, Barakaldoko Udalaren menpeko Udal Sektore Publikoko kide gisa:

- a) Barakaldoko Udalaren iragarki taula, egoitza elektronikoa, webgubea eta arreta emateko eta erregistratzeko bulego presentzialak baino ez ditu erabiliko eskabi-deak eta dokumentazioa, komunikazioak, iragarkiak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta hautaketa prozesurako beharrezkoak diren gainerako izapideak aurkezteko. Erakunde autonomoaren webgunea erabili ahal izango da, osagarri edo gehigarri gisa.
- b) Jatorrizko udalari eskatu ahal izango dio, erakundea atxikita dagoen zinegotzi delegatuaren bitartez, Udalak bere gain har ditzala kudeaketa lanak, datuak egiaztatzeko lanak, epaimahaiak edo epaimahaikideak osatzeko lanak, proba bateratuak edo komunak egiteko lanak, prozesu informatikoak eta burokratikoak egiteko lanak eta, beharrezkoa izanez gero, hautaketa prozesua osorik izapidezteko lanak.

1.4. Enplegu harremana eta hautaketa sistema

Hautapen-prozesua Barakaldo Kirolak erakunde autonomoko lan kontratuko langile finkoena da, eta hautaketa sistema lehiaketaren arabera antolatuko da, 20/2021 Legearen 2. artikuluan adierazitako salbuespenezko sistemaren arabera.

1.5. Prozesuaren araudia aplikagarria

Aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiari honako araudi hau aplikatuko zaio:

- Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzkoa.



- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa
- 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidego eta eskalei buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioei aplikatzekoa zaien guztian.
- Ordezko gisa, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartutako Estatu-ko Administrazio Orokorreko Langileak Lanera Sartzeko, Lanpostuak Hornitzeko eta Estatu-ko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen Lanbide Sustapenerako Erregelamendu Orokorra.
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatze-koa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri adminis-trazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore publikoko araubide juridikoarena.
- 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko
- Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 1986ko apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez one-tsitako toki araubideko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bate-ratua
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore publikoko araubide juridikoarena.
- Oinarri orokorrak.

1.6. Oinarrien zuzenketak eta aldaketak

Behar bezala justifikatutako arrazoiak izan ezik, oinarri orokorretan eta espezifikoetan aldaketarik gertatuz gero, behar bezala argitaratu arren, ez da jarduketen atzeraera-ginik izango, ezta eskabideak aurkezteko epea berriro irekitzea ere.

2. Parte hartzeko baldintza orokorrak

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa prozeduran parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak be-rretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatu behar zaion beste estaturen batekoa, Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuan zehaz-ten den moduan.



- b) Parte hartu ahal izango dute, halaber, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek, betiere Zuzenbidetik bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearenek ere, baldin eta bi ezkontideak Zuzenbidetik bananduta ez badaude, ondorengo horiek 21 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak izan eta haien kontura bizi badira (5/2015 LEDaren 57. artikulua).
- c) Aurretiazko eskaera egitea.
- d) Lortu nahi den eskala edo kategoriako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- e) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
- f) Diziiplina espediente bidez autonomia erkidegoetako edozein administrazio publikoren edo konstituzio edo estatutu erakunderen zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezian ez egotea, funtzionarioen kidego edo eskaletara edo lan kontratuko langileen kategorietara iristeko.
- g) Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ezin dira egon desgaituta (edo horren pareko egoera batean), eta ezin dute eduki ezarrita norberaren estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristea eragozten duen diziiplina zehapenik ez horren parekorik.
- h) Eskatutako titulazioaren jabe izatea edo titulazio hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazio hori berriazko oinarrietan adieraziko da. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.
- i) Atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiek dagokien baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria dutela egiaztatu beharko dute.
- j) Hautaketa prozesuaren barruan, lanposturako (lan kontratuko langileen kasuan) edo lanpostuari lotutako lanposturako (funtzionarioentzat gordetako plazen kasuan) eskatzen den hizkuntza eskakizuna dutela egiaztatzea, edo hautaketa prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen probak gainditzea. Baldintza hori betetzeko data hautaketa prozesuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzeako proba egiten den eguna izango da.
- k) Herri administrazioetako langileen bateraezintasunen arloan indarrean dauden legezko arauetan aurreikusitako ezgaitasuneko edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea; nolahi ere, kargu publiko bat edo jardura pribatu bateraezin bat betetzen dutenek aipatutako araudian aipatzen den aukera eskubidea baliatu ahal izango dute.
- l) Ez izatea karrerako funtzionarioak edo eskala, azpieskala edo kategorია bereko lan kontratuko langile finkoak erakunde deitzailean.
- m) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein baldintza.

Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek berriaz onartu beharko dute beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta xedearekin tratatzea.

2.1. Baldintzak betetzeko datak

Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretan eta espezifikoetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte eskubideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, 8.1 oinarrian aurreikusitako salbuespenak izan ezik, eta plantillako lan kontratuko langile finko gisa kontratatzen diren egunean baldintza horiek betetzen jarraitu beharko dute.

2.2. Betekizunak egiaztatzeako denbora eta modua

Betekizunak egiaztatzeako denbora eta modua zortzigarren oinarrian ezartzen dira.

3. Desgaitasuna duten pertsonen sarbidea

3.1. Desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkeztzen direnek, 2. oinarrian aipatzen diren parte hartzeak baldintzak betetzeaz gain, %33ko edo



gehiagoko desgaitasuna aitortua izan beharko dute Foru Aldundietako organo eskudunak, IMSERSOK edo baliokideak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

3.2. Oinarri espezifikoetan txanda bakoitzean deitutako plaza kopurua adieraziko da (sarbide orokorra edo desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako).

3.3. Desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako plazak, bertaratzen ez direlako edo dagozkien hautaketa prozesuak ez gainditzeagatik hutsik geratzen direnak, txanda irekian eskainitakoei gehituko zaizkie. Hala ere, desgaitasuna dutenentzako gordetako eta betetako plazak deitutako plazen %3ko tasara iristen ez badira, bete ez diren plazak hurrengo enplegu publikoko eskaintzaren ehuneko zazpiko kupoan sartuko dira, eta gehieneko muga %10ekoa izango da Enplegu publikorako sarbidea eta desgaitasuna duten pertsonen lanpostuen hornidura arautzen duen abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuaren arabera.

4. Hautatzeko baldintza orokorrak

Lanpostuak betetzeko baldintzak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazak ezin izango dituzte bete, inola ere, horiek betetzen direla egiaztatu ez dutenek. Baldintza horiek deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

Deialdi bakoitzean, deialdiko plazei lotutako lanpostuei esleitutako berariazko betekizunak zerrendatuko dira.

Lanpostu jakin batzuek espezialitate jakin bat izatea eskatzen badute, deialdien oinarri espezifikoek zehaztuko dute egiaztatze modua.

5. Lanpostuak esleitzeko baldintza orokorrak

Epaimahaiak ezin izango du proposatu lan kontratuko langile finkoa izatea deitutako plazak baino gainditu duten pertsona gehiago, salbu eta izendapenaren edo lanpostuaz jabetu aurretik hautatutako pertsonen uko egiten diotenean, edo 15. oinarrian xedatutakoaren arabera hautagaiei eskatutako dokumentazioa ez aurkeztean, edo aurkeztutakotik ondorioztatzen denean ez dutela betetzen 2. oinarrian eskatutako baldintzaren bat edo ez dutela betetzen zereginak betetzeko eskatzen den gaitasun fisikoa edo psikikoa.

Kasu horietan, epaimahaiak egindako hautaketa prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko da, dagokion izangaiaren aldeko izendapen osagarriaren proposamena egiteko, hautaketa prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio ordenaren arabera.

6. Argitalpenak eta iragarki taula

Hautaketa prozesuetarako deialdiak dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratuko dira, bai eta Barakaldoko Udalaren iragarki taulan eta webgunean ere. Hautaketa prozesuan zehar, Barakaldoko Udalaren iragarki taulan eta webgunean argitaratuko da haren garapenari buruzko informazio guztia, jakinarazpen ondorioetarako.

7. Eskabideen aurkezpena

7.1. Prozesua onartzea

Onartzeko eta, hala badagokio, dagozkien hautaketa prozesuetan parte hartzeko, honako hauek bete beharko dira:

- 1) Kategoria bakoitzeko eskabidea edo eskabideak atal guztietan betetzea.
- 2) Epe barruan aurkeztea.

Halaber, aurkezteko epea amaitzen denean, eskatutako baldintza guztiak beteta eduki beharko dira, 8.1 oinarrian euskararen ezagutzari buruz aurreikusitakoa izan ezik, 8.10 oinarrian aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko baitira.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak berekin ekarriko du prozesu hori arautzen duten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea.



7.2. Eskabideak aurkezteko modua

7.2.1. Eskabidea. Hautaketa prozesurako eskabideak Udalaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen instantzia galdetegi baten arabera formalizatuko dira (Barakaldoko Udalaren webgunearen bidez, www.barakaldo.eus) aurkezteko epean (7.4 oinarria), helbide elektroniko honetan:

Barakaldoko Udala-Egonkortze Hautaketa prozesuak Barakaldo Kirolak erakunde autonomoa.

Eskabideak bi formatu izango ditu, hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko lekuaren eta bitartekoaren arabera:

- a) Web instantzia galdetegia, Barakaldoko Udalaren egoitza elektronikoan bertan telematikoki aurkezteko.
- b) Eskabide-inprimakia PDF inprimagarri formatuan, deskargatzeko, betetzeko, sinatzeko eta aurrez aurre edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bide gehigarrien bidez aurkezteko.

7.2.2. Instantzia komuna izango da, bai txanda irekirako, bai desgaitasuna duten pertsonen txandarako, eta, gutxienez, honako informazio hau betetzeko eremuak izango ditu:

- a) Hautagaiaren datu orokorrak.
- b) Lortu nahi den plaza edo plazak, kategoriaren arabera.
- c) Aukeratutako txanda (txanda irekia edo desgaitasuna duten pertsonen txanda). Bi txanda horietako batean bakarrik parte hartu ahal izango da. Desgaitasunen bat duten pertsonentzako txandan parte hartzen dutenek adierazi beharko dute ea denbora eta/edo bitarteko egokitzapenik eskatzen duten hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egiteko, eta, hala badagokio, egokitzapen horien arrazoa adierazi beharko dute.
- d) Erantzukizunpeko adierazpena, eskatutako baldintza guztiak betetzen direla adieraziz, betiere epea amaitzen den egunari dagokionez.
- e) Plaza aukeratzeko gaitzen duen titulu akademikoa adieraztea, edo instantziak aurkezteko epea amaitzen denean hori lortzeko moduan dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- f) Euskara: Egiaztatutako gehieneko euskara maila adieraziko da, bai eta euskara azterketa egin nahi duen ere, lortu nahi den hizkuntza eskakizuna zehaztuta.
- g) Administrazio publikoetan egindako zerbitzuen aitortpena.
- h) Gainerako merezimenduak: oinarri espezifikoetan baloratu daitezkeen gainerako merezimenduak adieraztea.
- i) Datuak, betekizunak, informazioa eta merezimenduak egiaztatzearen edo/eta hautaketa prozesuan ofizioz sartzearen aurka ez dagoela adieraztea.
- j) Barakaldo Kirolak erakundearen esku dauden agiriak adieraztea, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentaziotik salbuesteko (7.2.3 oinarriak).
- k) Barakaldo Kirolak erakundeak deitutako hautaketa prozesuaren informazio ofizial, errekerimendu, komunikazio eta jarraipen guztia Barakaldoko Udalaren iragarki taularen, haren egoitza elektronikoaren eta webgunearen bidez egingo dela berariaz adieraztea, Barakaldo Kirolak erakunde autonomoaren webgunean edo aldizkari ofizialetako iragarkietan argitara daitezkeen informazio gehigarria izan ezik.
- l) Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztapenak edo salbuespenak egiaztatzeko berariazko baimena.
- m) Oinarriak ezagutzen direla eta hautaketa prozesuan parte hartzen dela adieraztea prozesua arautzen duten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea da.

7.2.3. Instantzian erantsi beharreko dokumentazioa. Instantzia galdetegiarekin batera honako hauek ere aurkeztu beharko dira:



- Parte hartzeko ezinbesteko titulu akademikoaren kopia. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazio ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da.
- Alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien kopia.
- Desgaitasun txandan parte hartzen duten izangaiek egoera hori betetzen dutela egiaztatzen duen agiriaren kopia aurkeztu beharko dute.
- Administrazio publikoetan egindako zerbitzuen ziurtagiria. Barakaldo Kirolak erakunde autonomoan egindako zerbitzuen ziurtagiria salbuetsita geratzen da, ofizioz emango baitzaizkio Hautaketa Epaimahaiari, plaza, kategoria eta lanpostua adierazita.

Hautapen-prozesuak eskatzen dituen gainerako agiriak zortzigarren oinarrian adierazten den moduan bakarrik aurkeztuko dira.

Aurkeztu beharreko agiriak Barakaldo Kirolak erakundearen esku badaude, ez da berriro aurkeztu beharko, baldin eta agiri horiek entregatzeko data eta bulegoa adierazten badira, eta dagokion prozedura amaitu zenetik bost urte igaro ez badira.

7.2.4. Betekizunak eta merezimenduak adieraztea:

Kontuan hartu ahal izateko eta, hala badagokio, zuzendu eta/edo egiaztatu ahal izateko, parte hartzeko baldintzak eta merezimenduak nahitaez aitortu eta alegatu beharko dira eskabideak aurkezteko epean, zortzigarren oinarrian adierazten den bezala.

7.3. Eskabideak aurkezteko tokia eta bitartekoak

7.3.1. Eskabideak eta eskatutako agiriak leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

- a) Eskabide elektronikoa egoitza elektronikoa: Aurkezpen elektronikoa aukeratuz gero, identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat izan beharko du, honako egoitza honetan onartuak:
- b) Aurrez aurreko eskaera: Barakaldoko Udaleko erregistro eta herritarren arretarako bulegoetan:

Barakaldo Kirolak erakunde autonomoaren egoitzan ez da eskaerarik aurkeztuko.

7.3.2. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak, eta Barakaldo Kirolak erakunde autonomoaren hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidea Barakaldoko Udalari zuzendu beharko zaio.

7.3.3. Informazioaren tratamendua: Instantzian emandako informazio guztia, eta, hala badagokio, ofizioz egiaztatzen eratorritakoa, tratamendu-jarduera batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baina ez da erabiliko. Jarduera horren erabilera eta funtzionamendua bat etorriko dira Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin.

7.3.4. Datuak egiaztatzea eta/edo ofizioz sartzeari: Ofizioz, eta beste bide osagarri batzuk erabiltzeari kalterik egin gabe, honako betekizun/informazio hauek egiaztatu eta/edo espedientean sartuko dira, interesdunak berariaz kontrakoa adierazi ezean:

- Nortasun datuak egiaztatzea.
- Titulu akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitateaz kanpokoak).
- Euskarazko hizkuntza-eskakizuna:
- Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) egindako ikastaroen zerrenda.
- IT txartelak (erakunde ziurtatzailea).
- Barakaldo Kirolak erakunde autonomoan egindako zerbitzuak.
- Era berean, beste administrazio edo erakunde publiko batzuetan egindako zerbitzuak ere egiaztatu ahal izango dira.



- Izangaiak instantzian adierazi duen dokumentazioa, dagoeneko Barakaldo Kirolak-
en esku dagoela, eta dagokion prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago
igaro ez direla.

7.4. *Instantziak aurkezteko epea*

Hoge (20) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdiaren laburpena
Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

7.5. *Akatsak instantzietan*

Garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, hautagaia kanpoan geratuko da.

Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikularekin bat etorritik, eskabideetan akatsik ego-
nez gero, Udaleko iragarki-oholean eta Udalaren webgunean, Udalaren eta haren era-
kunde autonomoen hautaketa prozesuei buruzkoan, interesdunari eskatuko zaio hamar
eguneko epean zuzen dezala dokumentaziorik eza, hautagaiaren erantzukizunpeko
adierazpenarekin bat etorritik, eta jakinaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atze-
ra egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

Informazio gehigarri gisa, errekerimendu hori Barakaldo Kirolak-
en webgunean ere
jaso ahal izango da.

Hau eta hautaketa prozesuak eskatzen dituen gainerako agiriak zazpigarren eta ha-
malaugarren oinarrietan adierazten den moduan bakarrik aurkeztuko dira.

8. Eskakizunak eta merezimenduak. Erreferentzia datak, deskribapena, alegazioa eta egiaztapena

8.1. *Merezimenduak eta parte hartzeko baldintzak betetzeko erreferentzia datak*

Alegatzen diren merezimenduak eta betekizunak eskuratzeko erreferentzia data es-
kabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, honako kasu hauetan izan
ezik:

- Euskararen ezagutza, 8.9 oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko
dena.
- Dagokion elkargo profesionalean elkargoko kide izatea, araututako lanbide bati
dagozkion eginkizunak betetzen dituzten eskala edo lanpostu jakinen kasuan; lan-
postuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da.

8.2. *Betekizunak eta merezimenduak alegatzea*

Parte hartzeko baldintza orokorrak eta desgaitasunen bat duten pertsonak sartzeko
txandari dagozkion baldintza espezifikoak, deitutako plazei lotutako lanpostuen berariaz-
ko baldintzak eta merezimenduak eskabideak aurkezteko epean alegatu beharko dira.

8.3. *Betekizunak eta merezimenduak egiaztatzea*

8.3.1. Epaimahai kalifikatzaileak alegatutako merezimenduak egiaztatuko ditu, ka-
suen arabera, dagozkion erregistroetan, administrazio publikoen datuen bitartekaritza
plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundean kontsulta eginez.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzailearen oposizio arra-
zoitua agertzen bada eta tratamendu jardueraren ardura duen organoak ikusten badu.

Arrazoitutako aurkakotarik agertuz gero, harekin batera nahitaez aurkeztu beharko
dira kontsultaren aurka dauden agiriak.

8.3.2. 16. oinarrian xedatzen den bezala, hautatutako pertsonak, lan kontratuko
langile finko izendatu aurretik, merezimenduei eta betekizunei buruzko agiriak aurkeztu
beharko dituzte, honako kasu hauetan:

- Horien egiaztapena ezin izan badu egin epaimahai kalifikatzaileak, edo
- Izangaiak egiaztapen horren aurka egin badute, organo eskudunak egiaztapen
hori aztertu duenean.



Hala ere, epaimahai kalifikatzaileak prozeduraren aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du dokumentazio hori aurkezteko. Kasu horretan, oinarri orokor hauetako 16. oinarrian ezarritako baldintzak bete beharko ditu dokumentazioak.

8.4. *Desgaitasuna duten pertsonak sartzeko txandan parte hartzeko baldintza*

3.1 oinarrian ezarritako sarbide-txandan parte hartzeko baldintza —%33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortzea— bere aitordenaren bidez alegatu beharko da, baldin eta aitordena euskal administrazio publikoek egin badute.

Aitordena beste administrazio publiko batzuek egin badute, aitorden agiriaren kopia soila ere aurkeztu beharko da.

8.5. *Esperientzia eta antzinatasuna*

Herri administrazioetan emandako zerbitzuengatiko esperientzia balioetsiko da funtzionalki antzekoak diren lanpostuei lotutako plazak eskuratzeko.

- Barakaldo Kirolak zerbitzuan emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, eta ofizioz zenbatuko dira.
- Gainerako herri administrazioetan emandako zerbitzuak justifikatzeko, egiaztagiaren kopia soila aurkeztu beharko da. Dokumentu horrek, administrazio bakoitzak erabakitzen duen ereduari, lan egindako aldiak banakatu beharko ditu, eta taldea, kidegoa, aukera, eskala, azpieskala, klasea edo kategoria eta plazari lotutako lanpostuaren izena zehaztu beharko ditu.

Ondorio horietarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero indarkeriagatiko eszedentzia egoeran egon diren denbora, amatasuna eta aitasuna babestea helburu duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa erantzukidetasunez uztartzea erraztea helburu duten denbora, eta langile publikoek genero indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua araberako (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua).

8.6. *Titulazioak*

Titulazioak alegatzeko, betekizun edo merezimendu gisa, dagokion izapidean deklaratu beharko dira, 8.2.2 atalean xedatutakoaren arabera.

Atzerriko titulazioen kasuan, gainera, tituluaren kopia sinplea aurkeztu beharko da, bai eta homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiarena ere, epaimahai kalifikatzaileak hala eskatzen dionean.

8.7. *Karrerako funtzionario edo lan kontratuko langile finko izateko prozeduran edo bihurtzeko edo aldi baterako estaldura emateko prozeduran parte hartzea*

Dagokion administrazioak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

8.8. *Ikastaroak*

Dagokion erakundeak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, ordu kopurua jasotzen duena. Ez dira kontuan hartuko orduak jasotzen ez dituzten ziurtagiriak.

8.9. *Informatika ezagutzak*

Informatika ezagutzak IT Txartela ziurtapen sistemaren bidez egiaztatuko dira, eta merezimenduak alegatzeko epean alegatu beharko dira.

8.10. *Euskarazko hizkuntza eskakizuna egiaztatzea*

Euskara azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko eta borondatezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, eta ez baztertzaila gainerako lanpostuetan. Euskara azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila gaituzten ez duten edo egiten ez duten izangaiek hautaketa prozedurarekin jarraituko dute derrigortasun hori



duten lanposturik ez duten lanpostuetan, eta, hala badagokio, ariketa honetan lortutako kalifikazioa zenbatuko da.

Barakaldo Kirolak erakundearen hizkuntza eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa prozesuan, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen salbuespenen kasuan (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoa eta euskarazko hizkuntza titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuestekoa), salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen bada.

Aukera horretatik salbuetsita daude eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen salbuespenen kasuan, aipatutako Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira.

Nolanahi ere, edozein titulu edo euskara ziurtagiri egiaztatzeko gehienezko epea euskara ariketa egiten den eguna izango da.

Egin beharreko egiaztapenak egiteko, interesdunak berariaz baimenduko du Barakaldo Kirolak programa, bere egiaztapena edo aipatu erregistroan duen salbuespena egiaztatzeko.

Nolanahi ere, interesdunak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta ditzake bere datuak, esteka honen bidez: <http://www.euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/>

Hizkuntza eskakizunen baliokideak diren ziurtagiriak eta tituluak honako hauetan zehazten dira: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzen dituen; eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartu eta euskarazko hizkuntza-titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteari buruzkoa.

8.11. Lanpostuen betekizun espezifikoak

Lanpostu zerrendan berariazko betekizunak esleituta dituen lanpostu bati lotutako plaza bat esleitu ahal izateko, izangaiak 8.2 oinarrian ezarritako epean alegatu beharko dute, oinarri espezifikoetan lanpostu bakoitzerako zehazten den moduan.

9. Hautagaiak onartzea

9.1. Instantziak aurkezteko epea amaitu eta eskabideetan akatsak zuzentzeko epea igaro ondoren, Lehendakariak behin betiko onarpen, baztertze eta atzera egiteen zerrendak onartzeko ebazpena emango du, izangaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorriz. Adierazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko da.

Zerrenda hori eskatzaile bakoitzak eskabidean betetzen duen erantzukizunpeko adierazpenari lotutako datuen arabera egingo da.

Zerrendetan jasoko dira hautagaien izena eta bi abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, eta ez onartzeko arrazoia, prozesutik kanpo geratzen diren pertsonentzat.

9.2. Onarpen, baztertze eta atzera egiteen zerrendak onartzen dituen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko (1) epean, ebazpena Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Baztertutako pertsonak merezimenduaren baloraziora eta euskara proba egitera kautelaz aurkeztu ahal izango dira, baldin eta egiaztatzen badute baztertua izatearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela, baldin eta egun horretarako ez bada ebatzi.



Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean jarritako errekurtsua ebatzi ez bada, interesdunek kautelaz egin ahal izango dute euskara proba. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsua ezesten bada.

9.3. Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa prozesuan eskatzen diren baldintzak aitortzen zaizkienik. Azkenean pertsona hautatzen bada, izendapenaren aurretik aurkeztu behar den dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela baldintzaren bat, prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte.

